

0.- SARRERA

Atzean utzi dugun bedatseak hainbat gertaera berezi izan ditu: Gerra Zibilean erahildako Vicente Mainz Landa (Landa) Bidankozeko errepublikanoaren gorpuzkien agerpena, lehen jaunartzeak, sute txiki bat Monxon etxean, Foru Parlamenturako hauteskundeak (aiza

bulgurako ez zen hautagairik egon), Igariko gainan ospatzen den Frankismoko esklabuei omenaldiaren 12. edizioa...

Orain udaren txanda da eta ziur fure herriaz gozatzeko aukera izango dugula, horrenbeste albiste berezi ez egon arren.

Eta horrela, gehiago luzatu gabe, Bidankozarte berri honekin hasiko gara, bertan orain arte ezagutzen ez zenuten zerbait aurkituko duzuelako itxaropenean.

Hasiko gara.

1.- HISTORIA APURRAK - MERKATARITZA ETA INDUSTRIAKO 1915EKO URTEKARIA

Herriko iragana ikertzerakoan, erraza izaten da herritarren lanbide eta karguen berri jasotzea. Halaber, duela 100 urtetik hona ezohiko lanbide gehienak ere aurkitu ahal ditugu; hau da, almadiazain, abeltzain edo nekazari ez, beste guztiak.

Baina batzuetan beharrezkoa dugu ezagutzera une jakin batean nor ari zen karguren batean edo lanen batean... eta beti ezin da lortu.

Oraingoan 1915eko *Anuario del Comercio y la Industria* deiturikoa aztertuko dugu. Bertan, jarduera ekonomikoak egiten zituzten pertsonen izenak ez ezik, zenbait kargu publikorenak ere agertzen dira.

Guztira, 17 lagun aipatzen dira:

Fernando Aizagar Arnalda (Longás [Aragoi] / *Aizagar*) zurgina; eta urte hartan udaleko epaile ere bazen;

Víctor Elizalde Ederra (Izaba / *Elizalde*) zurgin eta errotaria;

Sebastián Fuertes Sanz (*Xapatero*) igeltsero eta hargina;

Bernardo Goyena Aznárez (Orontze / *La Herrera*) arotza;

Ausencio Jiménez (¿¿¿?? / *Vicaría*), apaiza;

Luis Mainz Villanueva (*Navarro*) herriko jaberik nagusietakoa;

Pedro Antonio Mayo Landa (Uztarroze / *Rakax*) herriko jaberik nagusietakoa;

Marcelino Ornat Jimeno (*Ornat* / *La Santa*) igeltseroa;

Eusebio Pérez Urzainqui (*Diego*) herriko jaberik nagusietakoa;

Fermín Pérez Artieda (*Paxapan* / *Txestas*) hargina [igeltseroa];

Modesto Pérez Sanz (*Laskorna* / *Landarna*) postaria;

Cecilio Sanz Hualde (*Landarna* / *Santxena*), herriko jaberik nagusietakoa, baita ostatu eta janari-denda baten jabea ere;

Mamesa Zurita Carrión (Estepiñán [Huesca] / *Secretario*) eskolako maistra;

Hori dena ikusita, hainbat ondorio atera daitezke: igeltseroak/harginak izan ezik, “profesional liberal” guztiak kanpokoak omen ziren: zurginak, arotza, errotaria, idazkaria, maistra... Hori oso ohikoa izaten zen orain dela 100 urte arte, baina orduan egoera aldatzen hasi zen eta geroago herriko zurginak, errotariak, maistrak eta abar ere izan ziren.

Beste alde batetik, bitxia da herriko jaberik nagusietakoei buruz egiten den aipamena, antza denez, azienda eta lur-jabetza handienak zituztenei erreferentzia eginda. Aipatzen diren 5 etxeetatik 4 - *Navarro*, *Rakax*, *Santxena* eta *Ferniando*-, aberatsenetakoak ere baziren 32 urte lehenago, 1883an; beraz, beren ondasunei, batez ere, artalde handiak, eutsi zieten. Alabaina, hori ez dago argi *Diego* etxearen kasuan: 1883an herriko sailkapen ekonomikoko 8. postuan zegoen, orduan artalderik ez zeukaten etxeen artean lehenbizikoa. 1915ean etxea ez zen omen bizi artzaintzatik, baina garai haietan artaldeak hainbatetan kendu eta jarri egiten ziren.

Santxena etxeak ostatua eta janari-denda bazituen eta, aipatu ez arren, ziurrena estankoa eta taberna ere izango zituen, herriko elkargune garrantzitsua izanik.

Azkenik, bitxikeria gisa, esan behar da gaur egungo *Secretario* etxean ez zela idazkaria bizi izan, maistra eta bere familia baizik. Herriko idazkaria ziurrena *Iriarte*, *Elizalde* edo *La Herrera* etxean biziko zen.

Honaino duela mende bateko herriko argazkia.



Evaristo Urzainqui Salvoch (*Lengorna*) udal-fiskala;

Martín Urzainqui Gárate (*Ferniando*) herriko jaberik nagusietakoa;

Miguel Urzainqui Arguedas (*Arguedas* / *Artutx*) alkatea;

Francisco Zubiri Izal (Ezkaroze / agian *La Herrera*) udaleko eta herriko epaitegiko idazkaria;


2.- HEMEROTEKA - "EROETAKO" UDA (1915)

Batzuetan, orain dela 25, 50, 75 edo 100 urte zehazki gertatu zen albiste bat hemerrotekan bilatzea ez da lan erraza, eta aurkitu arren, ez da nahiko interesgarria suertatzen lerro batzuk eskaintzeko. Baina hau ez da kasua, ohiz kanpoko berri baten faltan, gutxienez bi baitaude.

Bidankozarte aldizkariaren aurreko zenbakian, hemerroteka atalean ikusi ahal izan genuen bezala, bedatsearen amaiera egundoko ekaitz bat ekarri zuen, kalte materialen gainera, Manuela Glaría-ren (*Aristu*) bizitzarekin amaitu zuen.

Horrela, Bidankozeko bizilagunak zorigaiztoko gertakizuna gaizitzen saiatzen ari ziren bitartean, ia hilabete bat geroago, herriak beste ezohiko ezbehar bat jasan zuen. Uztailak 13ko eguerdia zen eta Ernazen, San Martinen Harrian, Erronkariarrak Hiru Behien Zerga berritzen ari ziren bitartean, hodei beltz batzuk Bidankozeko zerua iluntzen hasi ziren.

Manuela Jimeno Mendigatxa (*Jimeno*), Bidankozeko bizilaguna, Odieta-barrutian bi mandoekin etxeko lursail bat goldatzen ari zen. Ekaitza hasi zen eta lehenengo tximistak erortzen hasi ziren. Odieta alderdiaren kokapena (gain batean) eta goldea metalikoa izatea zoritxarreko batzea suertatu zuen eta tximista batek lan-tresna bete-betean harrapatu eta, berez, haren gidaria zeharkatu zuen, hau da, Manuela gaixoa.



Berez gertaera makabroa bada, lazgarriagoa da *Jimeno* etxean geraturiko egokiera: 2 eta 15 urte bitarteko 6 umezurtz, Agustín Salvoch Urzainqui (*Zinpiartana*) alarguna, eta gainera, hildakoaren aita Jose Jimeno Perez

(*Jimeno*) etxean zaintzen zuena, bakarrik geratu ziren.

Guzti hau kontatzen duen berria 1915eko uztailaren 15eko *Diario de Navarra*-n irakur daiteke.

Eta, 10 egun igaro bezain laster beste ohiz kanpoko gertakaria azaldu zen gure herrian. Iruñeko errotxetik ihes egindako emakume zoro bat herri inguruetan zegoelako zurrumurrua zebilen. Honek esan nahi du, 60 kilometro ibiltzen egon zela mendi hauetatik zuzen etorri izan balu ere...

Gobernu zibilak, hainbat herri ohartarazi zituen eta alkatea bere *autoritateko agenteak* bidali zituen emakumearen bila herriko inguruetan zebilelako berria zutelako. Azkenean, José Urzainqui Machín (*Xoko*), basozaina izan zen iheslaria harrapatu zuena ziur aski Zeleiatik gertu (herritik iparraldera 3 kilometrorra).

Bigarren albiste hau hau 1915eko uztailaren 25eko *Diario de Navarra*-n argitaratu zen, non ezohizko gertakariei bukaera emateko, jatorri ezezaguneko txakur amorratu bat herriatik zebilela eta berarekin akabatu behar izan zutela kontatzen zuen.

Laburbilduz, 1915eko uztail hori zoratzeko moduko hilabetea izan zen.

3.- BITXIKERIAK - ENDONE PETRIKO XEIEEN 1965EKO EGITARAU

Orainetik ikusita, iragana eskasiako garaiak zirela pentsatzen ohi dugu eta, hortaz, herriko xeietako egitarauan aldaketa gutxi egongo zela urte batetik bestera. Baina hau ez da guztiz egiazkoa.

Juanko etxean gordeta bazuten 1964 egitarauaren kopia bat, nik neuk Nafarroako Liburutegi Nagusian (oraindik San Frantzisko Plazan zegoenean) hurrengo urteko xeien egitaraua aurkitzeko zortea izan nuen, 1965eko alegia.

Egia da urte batetik bestera egondako aldaketak irudimenaren kontua besterik ez

direla, edo ekitaldiren bat ez dela aipatu egitarauetako batean.

Horrela, bitxia da autoritateentzako hamaiketakoari aipua, Endone Petri eguneko mezaren ondoren izango zena, 1965. urte hartan herriko seme batek (eta orduko alkatearen, Enrique Hualderen [*Txestas/Juanko*] anaia), Bidankozeko Aita Albertok (*Txestas*), zuzenduko zuen ospakizun erlijiosoa

Honetaz gain, aldatzen diren ekitaldi guztiak "kirol probak" dira: errotako igerilekuan igeriketa txapelketa, plater-tiro,

zaku lasterketak, oinezko lasterketak, asto lasterketak...

Garaiko modari aipua badago ere egitarau hartan: Ezkonduak, haien egunean, yenka hainbat modutan dantzatuko dute orkestrak lagunduta.

Baina, dudarik gabe, 1964 eta 1965 bitarteko aldaketarik handiena xeien iraupena izan zen, bigarren urte honetan 5 egunekoak izan baitziren, aurreko urtea baino egun bat gehiago.

Egitarau osoa [Bidankozarteko blogean](http://www.bidankozarte.com) begira daiteke, orrialde honen beheko partean duzuen helbidean.

4.- OIKONIMIA - XOKO ETXEA

Bidankozeko etxeen laugarren buelta hau *Xoko* etxearekin amaituko dugu, *Egullorre* auzoan, garai batean *Endone Petri* izena zuen karrikan, gaur egun *San Pablo* izenarekin ezagutzen duguna.

Gaur egungo etxea berreraikia dago, 2005eko ekainean, orain dela 10 urte, sute baten ondorioz kanpoko ormak besterik ez baitziren zutik gelditu (argazkia 2004. urtekoa da).

Ordurako etxea 30 urte baino gehiago eramaten zituen hutsik. Berez, Don Nicolasen ohar bati esker, etxe honetan zehazki bizi izan zen azkeneko sendia eta etxea "ixtea" erabaki zuen data badakigu: 1974ko urriaren 7a. Udazkeneko egun hartan Marino Juanco Pérez (*Paxapan / Xoko*) eta Capitolina Aldunate (Ujué) senar-emazteek bere 22 urteko alabarekin Clara Isabelekin, bere inguruko bizilagunek hartutako bidea hartzea erabaki zuten eta Bidankoze utzi zuten.

Bikotearen seme nagusiak, Jesus Mariak, orduan 24 urte zituenak, kaputxino abitu-hartzea egin zuen eta Iruñean bizi zen, eta 22 urteko alaba Clararekin, herrian ikusten ez zuten etorkizun berri bati begiratzeko unea zela uste izango zuten. Baina sendi hau ez zen berez etxe horretakoa, 1949ko ekainean Marino eta Capiren ezkontzaren ondoren iritsi baitziren. Hortaz, zein bizi izan zen etxean lehenik eta zer gertatu zen haiekin?

Etxean aurretik bizi izan zen sendia, jatorriz bertakoa zena, 1949ko bedatsean utzi zuen etxea, Bilbon *Entre Rios* itsasontzian Argentinarako bidea hartuta, urte hartako maiatzaren 20an Buenos Airesera iritsiz. Rodrigo Urzainki sendiaz ari gara, eta etxeko azkeneko bizilagun gisa Simona Urzainki Fuertes (Florencio Rodrigo Mendigatxaren alarguna *Maizena/Xoko* eta bere hilobak/alabaorde eta alaba (abizen berdinak badituzte ere, alabetako batzuk Florencio eta Braulia Urzainki Fuertesena ziren, Simonaren

ahizpa), Valeria Rodrigo Urzainki, Dolores Rodrigo Urzainki, Filomena Rodrigo Urzainki, Rufina Rodrigo Urzainki eta María Ángela Rodrigo Urzainki, orduan 29 eta 11 urte bitartekoak.

Etxearen historia 1949ren aurretik



Argentinarako emigrazioarekin lotua egon da ere, berez Rodrigo Urzainki sendi-buruak, gutxienez bi bidaiak egin zituen *mundu berrira*, eta antza denez *amerikak egin zituen*. Badakigu Florenciok 1905. urtean lehenbizikoz itsasontzi bat hartu zuela Argentinara 25 urte zituenean. Eta badakigu ere, 1919. urtean Bidankozen Braulia Urzainki Fuertesekin ezkondu ostean, bere emaztearekin putzuaren beste aldera itzuli zela. Bertan gutxienez haien seme-alabetako hiru jaio ziren, Ceferino, Juana eta Valeria izenekin, azken bi hauek zendu egin ziren bikotea 1925. urtean Bidankozera *betirako* itzuli zirenean.

Baina Florencio eta Braulia ez ziren atzerritara joandako *Xokotar* bakarrak. *Xoko* etxetik, gutxienez, Brauliaren hiru anaia atzerriratu ziren, Narciso, Juan eta Andrés deiturikoak.

Aurreko belaunaldietan atzerriraturen bat egon litekeen arren, ezin izan dut gaurdaino baieztatu. Horrela balitz, agian atzerriratutako aitzindari horiek beste hauei erreferente gisa balio izango zien, ostean maleta egin eta putzua zeharkatzeko.

Etxearen historiarekin amaitzeko, eta eraikinarekin zuzenean harremanduna dagoen gertaerak, 1944ko udazken gara matza. Egun horietan makiak, gerrila antifrankistak, Pirineotako alderdi ezberdinetatik barneratu ziren, eta, hortaz, bazirudien makiak Bidankozera iristea saihestezina zela. Gauzak horrela, Bidankozeko hamarna bizilagunek, balio handiko gauzak hartu eta *Xoko* etxera ezkutatzera abiatu ziren. Eta zergatik etxe horretara? Ba bertan tranpola bat zegoelako, ukuiluaren zoruaren azpian ezkutatuta, eta etxea ezagutu ezkerro bakarrik topa zitekeena. Azkenik makiak ez ziren iritsi, baina gertaera hor geratzen da.

Izenari dagokionez, sinesmen arrunta da (eta agian egiazkoa, zalantzaren bat zabalduko badut ere)

Xoko deitzen zela bere jatorrizko kokapenagatik: *Montes* etxea eta *Elizarena (Paxapaneko etxe zaharra)* etxeen artean sortzen zen txokoan kokatzen zelako. Zentzuzko zitekeen... baina bestetik izenaren garapen fonetikoa, "x" ahozkerarekin hasieran, *Monxon* eta *Xapateron* bezala, *txokotik* baino, *Zokotik* datorrela adieraziko luke, agian norbaiten ezizen edo abizenagatik. Eta bestetik, eta bigarren aukera horretan sakonduz, Nafarroako Artxibategi orokorrean 1830eko prozesu batean aurrez-aurre ipintzen ditu "*Santiago Sanz, Zoko etxearen jabea*" "*Pascual Anaut Negizena etxearen jabearen*" aurka (*Inigizena*, egungo *Peña* etxea). Eta hortxe *Zoko* berriro ere.

Nolanahi ere, *Xoko* etxea, beste etxe bat bere historia eta bitxikeriekin.

Artikulu hau zabalduago irakurri dezakezue [Bidankozarteko blogean](#).

5.- TOPONIMIA - ODIETA

Hemerotekako ataleko gertakizuna ahotara ekarriz, gaurkoan *Odieta* toponimoari buruzko zertxobait ikasiko dugu.

Paraje hau Bidankozeko udalerraren hego-ekialdean kokatzen da, gure herriko mugek Erronkariko eta Burgiko mugekin topo egiten duten puntutik gertu. Mendi hau, Crisanto Paskelen (*Paske*) iritziz Bidankozeko zabalena dena, beste hainbat paraje ditu mugakide: iparrean *Arilla* eta *Epaio*; hegoaldean, Burgiko udalerria, non *Odieta* izena jarraitzen duen izaten; ekialdean, Erronkari, non bertako lurraldearen parte batek *Odieta* izena gordetzen duen, eta beste batek *Epaio*; eta

mendebaldean azkenik, *Baraku*, *Lizanzorea* (*Azanzorea*) eta *Ariztoia*.

Ereua honetan Bidankozeko hainbat etxetako bordak aurki daitezke (edo haietatik geratzen dena behintzat): *Jimeno* (horregatik gertatu zen hor tximista batek Manuela Jimeno [*Jimeno*] jo zueneko, bere bordaren inguruko lurra lantzen ari baitzen) *Ferniando*, *Diego*, *Landarna*, *Ornat*, *Larranbe*... Eta ahazturik izanen dudatan baten bat gehiago.

Izen honen esanahiari buruz, nahiko erraza dugu jakitea, izan ere, toponimo oso ohikoa dugu Euskal Herrian. Hantxerik, Nafarroan badugu horrelako

izenik hartzen duen herri bat eta bailara bat, (*Odieta*). Izena bi zatitan askatu liteke, batetik *odi-* (euskaraz "hodi", arroila) + *-eta* (lekuzko edo kantitatezko atzizkia), hortaz, *Odieta* izena arroila edo errekei atxiki geniezaieke, pitzaduraz beteriko lurraldeari men egiten dioten heinean.

Odieta izenarekin lotuta, seguruenik *Odieta*ko sima legoke, *hodi-* erroak hodi edo egitura tubularrei aipu egiten dien heinean. Antzina, baliteke izen honek eremu mugatuago bat ordezkatu izana.

6.- MEMORIA HISTORIKOA - LANDAKO VICENTEREN GORPUZKIAK AURKITU DIRA

Atal honetan, Mariano Mendigatxaren gutunen errepasoa berrartu behar genuen, baina gaurkotasmak ahotara ekartzea merezi duen berri bat ekarri digu.

Bidankozarteko 8. zenbakian, 2013ko ekainean, Ezkabako ihesaldiari artikulatu txiki bat eskaini zitzaion, Vicente Mainz Landa (*Landa*) bidankoztarrak gertaera hartan parte hartu zuelako. Artikulu hartan genioen moduan, Vicenteren ihesak besteena baino gehiago iraun omen zuen, izan ere, gehienak bi egunen buruan atzeman zituzten. Dena den, amaiera bera jasan izan zuten guztiek. Era berean, bere heriotzari buruzko informeak oso urriak ziren, hil zuten lekua eta lurperatu zuten tokiari zegokienez. Aipaturiko bakarra, indar publikoek erail zutela izan zen, eta Esteribarreko zehaztugabe leku batean lurperatu zutela.



Hau honela izanik, udaletxe batek (*Egues*) berriki agindutako hobi komun baten gorpuen ateratzea eman da, udaletxe hau afera horretan aitzindari izan delarik, Nafarroako Memoria Historiakoaren legearen harira. Lan horietan hiru pertsonen gorpuak aurkitu ziren buruan

tiro bat jasotzearen ondorioz hil zirela, eskuak lotuta zituztelarik. Gorpu hauek Eliako herritik bi kilometrotara aurkitu ziren (*Egues*barren dagoen herria, nahiz eta *Esteibarre*ekin muga egiten duen, horrek ekar zezakeelarik zer lekutan lurperatu zituzteneko nahastea). Behin ADN probak gauzatu eta familiarren datu-basearekin alderatuta, pertsona bakarra identifikatzea izan zen posible, gure herrikide izandako Vicente Mainz, alegia.

Bere gorpuak familiari eman zitzaizkion (argazkian, www.noticiasdenavarra.com orrialdetik hartutakoa, bere iloba Ricardo Galech Mainz (*Landa*), gorpuak dituen kutxa hartzen). Azkenean, denbora gehiegi irekita eman duen zauria ixten hasi ahalko dira.

Berri osoa ikusgai duzue [Bidankozarteko blog-ean](#).

7.- BUKAERA

Eta hau da dena oraingoz. Hurrengo zenbakia, bi hilabete eskas barru, xeietan.

Bere edukiak, mota anitzekoak: onddoak, Cosme etxea eta Bidankoztar baten armarrria Iruñeko alde zaharrean.

Elkar ikusiko dugu, ba, abuztuaren bukaeran. Uda on izan eta agur bero bat.